

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK BIRGAITZEKO OBRETARAKO

ERKIDEGOEN OBRA PARTZIALAK (2. Lerroa)

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren (Etxebide) laguntza-lerroa da. Etxebizitza bakoitzeko 3.000 €-tik gorako kostua duten eta 20 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten eraikinen "birgaitze-jarduerak" eskatu ahal izango dituzte. Laguntza horiek jaso ahal izateko, EIT egin beharko da. Eskaera obrak hasi aurretik izapidetu beharko da. Laguntzak atal hauetan zehazten dira:



ERKIDEGORENTZAKO LAGUNTZAK

	1 Motako Obrak	3 Motako Obrak		2 Motako Obrak
JARDUKETA INTEGRATUA**	%50 Gehienez 3.000 €/ bizt. edo 30.000 €/ atariko	%50 Gehienez 3.500 €/ bizt. edo 35.000 €/ atariko	E Kalif. Energetikoa CO ₂ murrizketa >%30	%40 Max. 50.000€/atari edo 5.000€/etxb.
JARDUKETA ISOLATUA*	%40 Gehienez 2.500 €/ bizt. edo 25.000 €/ atariko	%40 Gehienez 3.000 €/ bizt. edo 30.000 €/ atariko	D Kalif. Energetikoa CO ₂ murrizketa >%50	%50 Max. 65.000€/atari edo 6.500€/etxb.

1. mota. Kontserbazio-, segurtasun- eta bizigarritasun-obrak: egitura egokitzeko jarduketak; fatxaden birgaitzea; terrazak eta balkoiak jartzea edo handitzea edota luzatzea; estalkiak, instalazioak eta isolamendu akustikoa ordeztzea; hirigintza egokitzeak; suteen aurkako babesa.; atariak eta eskailerak konpontzea.

2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak: kanpoko arrotzeria ordeztzea; isolamendu termikoa; erkidegoaren instalazio berriak edo eraberritzeak egitea: berokuntza, hozketa, aireztatpena, energia elektrikoaren autokontsumoa, ur bero sanitarioaren ekoizpena, argizatpena, inguratzaile termikoa edo barneko airearen kalitatea; eraikin osoan terrazak eta balkoiak modu uniformean ixtea

3. mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak: igogailuak berritzea edo instalatzea; arkitektura-oztopoak kentzea; bide publikoko sarbideak eraberritzea; ekipiak eta tresnak berritzea eta behar bezala seinaleztatzea. Laguntza horiek eskatu ahal izango dira, nahiz eta gastu-etxebizitza bakoitzeko 3.000 € edo eraikinak 20 urteko antzinatasuna lortu ez, baldin eta 65 urtetik gorako eskatzaile bat edo desgaitua badago.

BIZILAGUNENTZAKO ETA/EDO JABEENTZAKO LAGUNTZAK

Zerga-onurak

Bizikidetzaren unitate guztientzat, GFAko Ogasun Sailak ezarritako mugekin, eta betiere Eusko Jaurlaritzak jarduketa hori birgaitze-jarduketatzat hartzen badu.

Maileguak:

Urteko 39.000 €-tik beherako diru-sarrera haztatuak dituzten bizikidetzaren unitateentzako finantzaketa kualifikatua.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, urteko 25.000 €-tik beherako diru-sarrera haztatuak dituzten bizilagunentzako edota jabeentzako birgaitze-lanetarako.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza berezia 65 urtetik gorako bizilagunentzat edota jabeentzat edo mugikortasun murriztua edo sensoriala duten eta diru-sarrerak (DsH) < 25.000 € edo (DsH) < 12.000 € dituzten bizikidetzaren unitate guztientzat.

DsH	FU Kideak	1.mot. obrak	3. mot. obrak	Obras Tipo 3
JARDUKETA INTEGRATUA**				
<9.000 €	=<3	55 %	55 %	60 %
	>3	60 %	60 %	65 %
9.001 €	=<3	50 %	55 %	55 %
15.000 €	> 3	55 %	60 %	60 %
15.001 €	=<3	40 %	45 %	45 %
25.000 €	> 3	55 %	50 %	50 %
GEHIENEZ (€)		7.500 €	9.500 €	10.000 €
JARDUKETA ISOLATUA*				
<9.000 €	=<3	45 %	50 %	50 %
	>3	50 %	55 %	55 %
9.001 €	=<3	40 %	45 %	45 %
15.000 €	> 3	45 %	50 %	50 %
15.001 €	=<3	30 %	35 %	35 %
25.000 €	> 3	35 %	40 %	40 %
GEHIENEZ (€)		5.500 €	7.500 €	8.000 €

DsH	FU Kideak	Irisgarritasuna
< 12.000 €	-	100 %
12.001 €	1	25 %
	2	50 %
15.000 €	=<3	100 %
15.001 €	1	0 %
	2	25 %
18.000 €	=<3	50 %
18.001 €	1/2	0 %
25.000 €	=<3	25 %

** **Jarduketa integratuak** dira errehabilitazio integratuko eremu hauetakoren batean garatzen direnak: Arrasateko HH eta arrabalak, Elgetako HH, Leintz-Gatzagako HH, Antzuolako HH, Aretxabaletako HH, Oñatiko HH, Bergarako HH eta Eskoriatzako HH. Eta eremu degradatu hauetakoren batean garatzen direnak: Arrasateko San Andres auzoan (A-7 eta A-11), Aretxabaletako San Migel de Bedarreta auzoan eta Bergarako Osintxu auzoan. * **Jarduera isolatuak** izango dira beste guztiak.

Lege-esparrua

2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.